

ALTZA INSTITUTUKO EUSKARAZKO ALDIZKARIA

Gazte



ELKARRIZKETA

Mikel Aranburu

KOMEKOKOS

JAKIN-MINA

Euskal Mitologia

ALTZAN GURE SALTSAN

KONTU KONTARI

Zine Kritika

Hiztegi Erotikoa

KONEXIOAK

KOMIKIA

2003KO ABENDUA
14. ALEA

**MIKEL ARANBURU:
" AMETS NAHIKO
XELEBREAK
IZATEN DITUT "**




altza institutua

2002-03 ikasturteko argazkigintza

- 1 AZALA
- 2 ALTZA INSTITUTUA
- 3 AURKIBIDEA
- 4-9 ELKARRIZKETA: MIKEL ARANBURU



- 9-10 KOMEKOKOS
- 11-12 JAKIN-MINA: EUSKAL MITOLOGIA



13-16 ALTZAN GURE SALTSAN



- 17-20 KONTU-KONTARI
- 21-24 LABURRAK



- 25 KONEXIOAK
- 26 DENBORAPASA
- 27 KOMIKIA
- 28 URTEBERRION

PARTE HARTZAILEAK

**AZALA
ELKARRIZKETA
KOMEKOKOS, KONEXIOAK**

**JAKIN-MINA
ALTZAN GURE SALTSAN**

KONTU KONTARI

**KOMIKIA
MARRAZKIA
MAKETAZIOA
KOORDINAZIO LANETAN**

**MIKEL MENDIZABAL\PLASTIKA-TEKNOLOGIA
NAGORE CLARAMUNT\6B, AINTZANE ARTANO\6B
IÑAKI CARACENA\IKASLE OHIA, DAVID
HERNANDEZ\IKASLE OHIA, IRATXE PAULOS\6B,
ANDER PEREZ\6B
XABIER BERMUDEZ\5B
AITOR AGIRREGABIRIA, ELI HERMOSO, TAMARA
CAMPO, NEREA FERRADAS, LEIRE GONZALEZ,
ERIC FERNANDEZ, ANE ALFONSO, GORKA
ARRUTI, MARTA CORREYERO\3D
DAVID DIAZ\3A, ROSA VICENTE\5B, XABIER
BERMUDEZ\5B
URKO RUIZ\5B
MIKEL FELIPE
MIKEL MENDIZABAL, PATXI SARASOLA\PLASTIKA
BITTOR FERNANDEZ\HIZKUNTZA NORMALKUNTZA
ANTTON JUARISTI\EUSKARA, PATXI SARASOLA**

Hara hemen
elkarrizketa
berezia,
Errealako
jokalaririk
onenetariko bat
eta dudarik gabe
guapoena ere
bai, ea zer
kontatzen digun:



ELKARRIZKETA

MIKEL

ARANBURU

Gazte: Mutil jatorra eta guapoa izanda, nexkarekin ala nexkarik gabe zaude?

Mikel: Nexkarik gabe.

G: Kolorerik gustokoena?

M: Urdina

G: Bizitzeko gehien nahiago duzun lekua?

M: Azpeiti

G: Parranda gustoko duzula suposatzen dugu, baina ze leku duzu gogoko parranda egiteko?

M: Hori jendea eta denboraren arabera izaten da, baina, Hernani adibidez esango nuke.

G: Edari bat?

M: Ura

G: Mutil baten izena:

M: Josu

G: Nexka baten izena:

M: Lierni

G: Badakigu Errealako oso talde adiskidetsua dela, baina norekin duzu harreman estuena?

M: Igor Jauregi-rekin. Nik uste dut denak ditudala lagunak, baina, onena edo denbora gehien pasatzen dudarekin, Igorrekin da.

G: Adiskidetasuna alde batera utzita, zuretzako zein da jokalaririk onena Errealean?

M: Onena... bat esatea zaila da, baina aurreneko urtea ikusita, bat esan beharko banu, aurreko urtean ondoena zein ibili zen, ba Nihat esango nuke.

G: Errealako denbora pasa, eta zure golaren zain egon ondoren, azkenean iritsi zen, baina nori dedikatu zenion gol desiratu hori, eta zergatik?

M: Gogoratzen naiz izan zela, Aitor Zabaleta hil zutenean hortik oso denbora gutxira, gainera porteria horren atzean zegoen bere argazkia eta orduan berari dedikatu nion, beno dedikatu, ez dakit zenbaterainoko balioko zuen, baina behintzat harentzat joan zen edo behintzat berataz oroitu nintzen.

G: Zure jokalaririk gogokoena nor da edo nor izan zen?

M: Maradona adibidez ez nuen gehiegi ezagutu, baina, ikusi ditudan iruditan eta, munduko jokalaririk onenetarikoak izan dela ziur nago, onena izan ez baldin bada. Eta orain momentu hontan, asko daude onak, adibidez futbolaz gozatzeko Zidane ikustea ez dago batera gaizki.

G: Futbola lagatzean, ze asmoak dituzu egiteko?

M: Momentuz behintzat, ez dut ezer segurua, ze azkenian hemen gauzak denbora gutxian asko aldatzen dira eta ez dakigu oraindik zenbat denbora pasako dudan hemen, futbol mundu hontan. Urte batzuk igaro nahi ditut hemen eta gero datorrena ikusiko dugu.

G: Zer egin behar zenuen futbolaria izan ez bazina?

M: Ez dago jakiterik, baina seguraski lanean egongo nintzateke edo ikasketetan segi izan banu ere, segun eta ze ikasketa hartu, agian lanean arituko nintzan orain. Edo bestela beste kirolen batean, ze kirola betidanik izan dut gogoko eta ziurrena beste kirolen batean arituko nintzen, gustoko dudan beste kirola, esku-pelota da; esku-pelotan ibili nintzen Errealan sartu arte eta bi kirolak tartekatu izan ez nuen arte.



"kirola betidanik izan dut gogoko"

G: Entrenatzaile asko izan dituzu, baina ze entrenatzailez gordetzen duzu oroimenik gustokoena?

M: Gaztetan eduki nuen Luis Landa izeneko entrenatzailea, "Jirafa" deitzen genion, herriko taldean aritzen nintzenean; berak deitu ninduen infantiletan jokatzeko, nik urtebete gazteagoa izanda; berak deitu izan ez banindu ez nintzen ezta entrenatzera ere joango, eta berari esker urte hartan jokatzetik izan nuen. Hurrengo urtean Errealan sartzeko aukera izan nuen.

G: Denoueix-ek gaztelaniaz hitz egiten dizue?

M: Saiatzen da gaztelaniaz hitz egiten, baina frantsesez erreztasun gehiago dituen eta gainera Julen Masach hor onduan duenez, denetik egiten duena, ba beti erraz aritzen da.

G: Suposatzen dugu asko ligatzen duzula, baina futboleak aritzeak gehiago ligatzea esan nahi du?

M: Ez da gehio ligatzen. Jendeak gehio ezagutzen zaitu, azkenean hori ez dakizu ona edo txarra den, baina jendea ezagutzeko aukera gehiago ematen dizu seguru.

G: Bereziki maite duzun pertsona hori nor da?

M: Era diferentetan maite ditut pertsonak, baina zuek ezagutzen duzun pertsona bat... adibidez Igor Jauregi, ze beste pertsona batzuk izendatzea eta zuek ez ezagutzea ez litzateke ongi egongo.

G: Nola definituko zenuke zure burua hitz gutxitan?

M: Nire ustez ez dago pertsona bat hitz gutxitan definitzerik, eta beti pentsatu izan dut horrelako galderak ez nituzkeela erantzuten jakingo.

G: Zerk sortzen dizu beldurra, farregura eta negarra?

M: Beldurra eta negarra maite dudan pertsona bat galtzeak. Farregura gehien sortzen didana jendeak bapatean izaten dituen irteerak, ez txisteak, baina irteera bitxiak bai.



G: Zure bizitzan egin duzun zerbaitetaz damutzen zara?

M: Damutu damutu ez, baino hanka-sartze bat izan duzunean geroxeago konturatzen zara, baina horrek ere ikasteko balio dizu. Ez daukat ezer esateko, "berriz jaioko banintz hau ez nuke berriz egingo". Baina eskerrak horretarako akatsik ez dudala izan.

G: Norekin egiten duzu amets?

M: Amets nahiko xelebreak izaten ditut, askotan neu ere harrিতта geratzen naiz.

G: Demagun nahiago duzun zerbaitetaz berpizteko aukera izaten duzula, zer edo nor izatea gustatuko litzaizuke?

M: Arrano batengan adibidez ez litzateke batere gaxki egongo.

G: Txikitan denok izan dugu futbol talde gogokoena, zure kasuan zein izan da?

M: Erreal.

"futbolak berarekin gauza onak eta txarrak dakartza."

G: Zu baino txikiagoa den anai bat duzu, futbolearen ere aritzen dena, baina zuen artean futbolaz hitz egiterakoan, liskarrik sortzen al dira?

M: Futbolari buruz eztabaidak ez, futbolaz hitz egiten dugu, baina askorik ere ez.

G: Azpeitian zure debutaren zain egon ondoren, kontaguzu nola hartu zuten:

M: Ondo. Oroitzen naiz, Errealak UEFA-n sartzeko aukera zuela pare bat aste galduta genuela, eta orduan ez zen hain partidu garrantzitsua. Beraz, taldekideei sarrera dexente eskatuz, hamabi sarrera edo, nire lagunak etorri ziren eta haien artean poza nabari nuen, neregan ere poza sentitu nuen.

G: Ze diferentzia dago lehen egiten zenituen parrandetatik gaur egiten dituzu parrandetara?

M: Lehenengo diferentzia nabarmena adina da, eta askotan konturatzen zara jendea begira duzula, hori askotan ez dugu gustoko izaten baino azken finean ulertu beharra dago ze futbolak berarekin gauza onak eta txarrak dakartza.



"Argi daukat Euskal Selekzioarekin jokatu nahi dudala berriz ere."

G: Ze iruditzen zaizu Beckham, batez ere publizitatea dela edo futboleko jokatzera etorri dela?

M: Futbolari bezala niri oso ona dela iruditzen zait, gero bere inguruan mugitzen den dirutza eta prentsa guztia beste gauza bat da.

G: Aurten Alkiza bueltatu egin da, zer moduz hartu duzu bere itzulera?

M: Oso ondo. Pertsona jator bat ezagutzeko aukera izaten ari gara eta egia esanda kanpotik begiratuta beti pertsona jatorra eta oso tipo normala iruditzen zitzaidan eta orain berarekin aldagelan nagoenean, nuen irudi hori baieztatzen hasi naiz.

G: Haurtzaroko lagunak gordetzen al dituzu?

M: Bai. Haurtzarokoak eta gero aurrerago ezagututakoak ere bai. Azkenean, bizitzaren gora-beherengatik lagun batzuen erlazioa uzten duzu eta beste berri batzuk egiten dituzu. Baina orokorrean herriko jendea eta beti inguruan izan dudana ere inguruan aurkitzen ditut.


G: Hemen bertan Espainiako Selekzioaren partiduak ditugula ikusten dugu, baina gustatuko litzaizuke selekzio horretan jokatea?

M: Nik aurreko urtean Euskal Selekzioan jokatzeko aukera izan nuen eta nik argi daukat Euskal Selekzioarekin jokatu nahi dudala berriz ere.

G: Hau ikusita, nola lortu genezake Euskal Selekzioa ofiziala izatea?

M: Hori lortzeko, danok ipini behar dugu gure aldetik zeozer eta beste kontu askotan bezala jendeak nahi duguna egingo dugu, zeozer emateko gai baldin bagea eman behar dugula uste dut, baina Espainia eta Frantzia aldetik ez dut nik erreztasunik ikusten, baina saiatzen baldin bagea aukera gehio izango ditugu.

Nagore Claramunt eta Aintzane Artano.



HI; NIHAT!
DESMARKATUKO
AL HAIZ EDO
ZE ARRAIO!

KOMEKOKOS

GRAN BASERRIA



iratxe
paulos



iñaki
caracena



david
hernandez



ander
perez

Ongi etorri GRAN HERMANO baserrira!! Seguraski ez duzue ondo hauteman animalari espezie desberdinak daudela gure baserri honetan.

Sartu eta eskuinean ikusi dezakegu oso erraz, behien familia dagoela, Aida familiaburu bat eskatu Aida bistatik sartuta. izango zirela, bidali zuten, eramane zuten, (denborarekin gauza guztiak bere lekuan bukatzen dute). azpian txahala daukagu. Laura izeneko txahala oso ondo zen gero aipatuko dugun txerrietako batekin. Horregatik bukatuko duela igartzen dugu. Familia honetako azken zezena da. Ramón "buztana" baino "burua" dela, baina oilasko maiteak zezen plazara sartuko



ikuilura bere ingurumenera

Oilategian agertuko zaigu. Oilasko honek ikuiluan bakea sortarazi nahi ez du arrakastarik. Bai, Denis oilaskoa dugu, eta ez oilarra. oilarra izan nahiko luke, baina bere "arraultzek" bakarrik jateko aurkitu dezakegu. erortzen zaizkion baina Ramón belarra Denis eta Nico oilarrari ipurdiko zorriak jaten dabil. oilar bakarra da, goizero bere kukurrukuarekin kontrolatzen saiatzen dena da. Inork ez dio kasurik



Behiaren eramaten harategian kidea 'bizarra' sartuta, hiru kide ditugu. Guri harrera emateko Denis



du, baina Bera k balio dute. Oilasko zorriak jatera

Denis eta Nico oilarrari ipurdiko zorriak jaten dabil. oilar bakarra da, goizero bere kukurrukuarekin kontrolatzen saiatzen dena da. Inork ez dio kasurik egiten (Nuria espeziebakarreko kideak ezik), beti bukatzen dituelako esaldiak "hijo de pííííí" edo "gilipííí"-rekin.



Bestela, Carla azeriak (Zorra Zorritis espeziekoa) oilaskoak jango lituzke. Azeria dela diogu, hartzen duen bakoitzean ez dituelako ezta hezurak uzten, denez...



oilasko bat hain "rata"

Zuen gurasoek (un barquito de cáscara de papel...), Ceutatik itsasontzi "atornasolatuak", ez zuen



ezagutuko duten nuez, adornado hauskor batean etorri zen gure arrain Guadalix de la Sierra-ko arrainontziko



abestian bezala con velas de etorri zen gure arrain arrainontziko

KOMEKOKOS

hondoa kopetarekin garbitu, ikusleek bere erlijioko tradizio bat bete baino lehen bota zutelako. Arrainontziko beste kide bat Julián dugu. Arrain boldro bat dela diogu, tabako ezak "monoa" eragiten diolako eta askotan arrainontzitik ateratzen da zuhaitzetik saltoka ibiltzeko, "asíín de claro" esaten dizuegu. David dugu azken arraina., k a t u a askotan Hainbeste



izokin antza duena. Aida orde, Mexikotik Isabel Madow persa bidali ziguten. Horregatik diogu Davidek izokina dirudiela, katuak sartzen baitzuen hatzaparra arrainontzian berarekin jolasteko. kolpe eman zizkion non asko ergeldu zen.

lehen aipatutako txerria da, Laura txahala harategi bidean txerria ez zuen inork maite, bera lorrinzen den lupetza nahi zituelako Nico oilarra eta Nuria espeziebakarra. David b a i n o zen Bea etxetik dagoen s a l t s a deialdia Aldizkari hau argitaratzerakoan kalean egongo dela iragartzen "zabez?".



Txerritokian bi txerri ditugu: Bea eta horregatik bere ohetik bota bezala, bere maindireak ez zikintzeko. Ainhoa orain etxean txerri erraldoia da. Berak, bere espeziekoarekin bat etorrita guztietan sartzen du muturra, eta horregatik kanpora botatzeko egiten dute aldizkari bateko kide



eta Ainhoa. Bea jarri zuena. Bea berberan lurperatu izokina bihurtu motatako animalia zuen, ikusleek b a t z u e k . d u g u ,

Zientzialari batzuek 1971. urtean bildu ziren Salou esperimentu genetiko bat prestatzeko. Izaki berria sortu nahi bezain handiak ziren txerriak sortu nahi zituzten, baina tomate patata frijitu marka ezagun batentzako produktu berri bat egiteko (urdaiazpiko eta tomate zaporearekin). Asto, txerri eta tomate geneak probeta batean sartu zituzten, baina behin zientzialari bat erori inplantatu txerrikume handiak atera j a m ó n & bosgarren



batek hortzak marrubi pastarekin garbitzen zebilela, tanta zitzaien eta zerri baten zuten nahastea. Txerri eduki zituen. Lau txerri, ziren, eta horiekin asmatu ketchup" zaporeko patata txerriaren kasuan zerbait gaizki atera zen eta...



inguruetan zuten: astoak zaporearekin, obulutegian horrek bost astoak bezain ziren "jamón, frijituak. Baina

SORTU ZEN!!! Animalia arraro honek heltzeko arazo larriak ditu eta bere desorden mentalak "Salou es mío" obsesiboki errepikatzen bultzatzen du. Fresitak Nico maite du, baina oilar hau ez dago ados mota horretako izaki arraroarekin harremanak edukitzeko. Nico eta Fresita parralara igo direnez ez dira bukaerara iritsiko.

Beste batean beste motatako mundu bat, bere bertako espezie ezberdinekin. Ez dakigu zuek gu gabe bizitzeko gai izango zareten hurrengo hiruhilabetean!! **ALA, HURREGORARTE!!!!!!!!!!!!!!**

* artikulu honetan idazleok pertsonak kritikatzeko ditugu, EZ arrazak, EZTA kultura ezberdinak ere.

JAKIN-MINA




xabier
bermudez

EUSKAL MITOLOGIA:


Basajaun:

Artzai euskaldunen lagun ona da basajaun. Ardiak zaintzen dizkie; artegi batean edo bere inguruan aurkitzen denean, ez die otsoei inguratzen uzten. Ardiek euren zintzarriak denek batera astinduz adierazten dute basajaun gertu dagoela. Orduan artzaiek lo egin ahal izango dute lasai, badakitelako basajaunak euren artaldea kanpoko arriskuetatik babestuko dituela haren ardiak. Horren ona izanda ere, apaiz kristauak ez dute basajaun gustuko eta gerra egiten diote, bera ehizatzeke martxak eginez, e.a ...



Galtxagorriak:

Geinu txikak dira galtxagorriak. Orratzontzietan launaka bizi dira. Ikaragarrizko indarra dute txikiak izan arren. Indar hori euren jabearen esanetara erabili ohi dute beti. Euskal Herriko beste toki batzuetan Familiarrak edo mamarroak deitzen diete. Galtxagorriak Baionako denda batean saltzen omen ziren. Esaten da behin Baionan gizon batek idi lasterketa batean apostua egin zuela eta bere idiek galtzen zihoazela ikustean, orratzontzia uztarrarian jarri zuela eta honi esker apustua irabazi zuela.



JAKIN-MINA**EUSKAL MITOLOGIA: OLENTZERO**

Kixmi jaio zenean,
jentilek horren berri
jakin zuten. Horrek
eragin zuen beraien
desagerpena, baina
haietako bat menditik
jaitsi eta jendeari
Jesusen berri eman
zion.

Guk ikazkin mozkortia
dela esan ohi dugu
menditik etorri zelako
eta Gabonetan(urteko
egunik motzenetan) jai
egiten dugu berak
ekarritako berri ona
ospatzeko.



olentzero
joan zaigu
mendira lanera
intentziuarekin
ikatzak egitera




aditu zuanian
jesus jaio zela
lasterka etorri zen
berri ematera



orra
orra
gure olentzero
pipa hortzetan duela
eserita dago
kapoiak ere baditu
arraultzatxuekin
bihar meriendatzeko
botila ardoakin
botila ardoakin



GEHIGARRIA



tamara
campo

nerea
ferradas

OLIOA BIRZIKLATZEA

Olioa birziklatu nahi duzue eta ez dakizue nola? Guk daukagu erantzuna.

Altzara edo Larratxora joan (Altzan : hilabetearen lehenengo asteazkena eta hirugarrena eta Larratxon : hilabetearen bigarren eta azken asteazkena), han aurkituko zarete kamioi batekin(olioa birziklatzeko kamioia) eta gehiagorik gabe bertan dagoen gizonari olioa emango diozue baina ez bazaude inguru hauetan ,ez larritu, beste leku batzuetara joaten da eta: Grosera , Antiguora, Errenteriara, Lasartera, Urnietara, Usurbilera eta Aginagara.



Guk berarekin hitz egin genuen eta gauza bitxi batzuez jabetu ginen adibidez:

Badakizue zer egiten duten jendeak emandako olioarekin? Gasolina ekologikoa eta xaboiak, Baina kosmetikoak eta ,emakumentzako produktuak ere egiten dituzte ,baina lehenago animalientzako janaria egiten zuten.

Olioaz gain beste gauza batzuk birzikla ditzakezu adibidez garbiketarako produktuak, aerosolak, margoak, disolbatzaileak, bonbilak, motorren olioak, telefono mugikorrak, erradiografiak, arropak etab. Interesgarria ezta? Eta gutxi balitz, horren ordez xaboi bat ematen dizute. Jende guztia animatzen dugu, gehienbat jende gaztea,etxean duten produktu toxikoak bertara eramatera.



ALTZAN GURE SALTSAN

leire
gonzalezeric
fernandez

AGINTARIEK ERRAUSTEKO PLANTEN ALDE EGIN DUTE ZABORRAK KUDEATZEKO



Gipuzkoan zabortegiarenak egin du. San Blasekoa ixteko bidean dago, eta laster iritsiko zaie txanda San Markoskoari eta Lapetxeakoari. Agintariak eurek aitortzen dute egoera kezagarria dela. Ezin da ahaztu gaur egun, ez Tolosaldeak, ez Debagoeinak ez daukatela zabortegirik, eta hondakinak Goierriko Sasietakoan botazen dituztela. Gizarte eragile gehienak onartzen dute zabortegiak gutxitu egin behar direla. Duela bi ute, 2000n, gipuzkoarrek 400.000 tona zabor sortu zituzten eta horiei guztiei erantzun egin behar zitzaizkien.

Kontua da aldundiak ez duela hondakinen kudeaketari buruzko eskuduntzarik, horiek udalerrien edo euren artean sortutako partzuegoen esku daudelako. Gipuzkoan bi errausketa labe egiteko erabakiak hartuta zeudela: Txingudin bat, eta San Markoskoa Urnietan. "Gauza ez da errausteko labeak egitea, egiteagatik, baizik eta dauden beharren eta, aukeren arabera, zenbat egin behar diren eta non guztion artean ikustea". Diotenez, herrialde hartan berdeak gobernukide direnetik, bertakoa da Europako Batasunean ingurumena gehien jagoten duen lurraldea. Handik ekarri dute zaborren aurretratu mekaniko-biologikoa deitutako sistema.

Zabortegeira berreskuratu, birziklatu edo erre ezin direnak bakarrik botako dituzte. Erretzeko zeuden aukerak ere aztertu dituzte: Cementos Rezola enpresak daukan labea batetik, Pasaiako zentral termikoarena, bestetik. Biak gainezka daude, Aisorenak azaldu duenez, Foru Aldundiak argi dauka errausteko labea egin beharko dela.

Horixe da, hain zuzen, agintariak eta talde ekologistak aurrez aurre ipintzen dituenak.

Egitasmo Nagusian bertan azaltzen dutenez, errausteko planta "eramangarritasuna estrategiaren barruan" sartzen dute "berriztagarriak ez diren energiaren kontsumoa saihesten delako, baztertutako hondakinen tratamenduaren bitartez.

Nabarmendu duenez, gaur egun eraikitzen diren planta guztiek betetzen dituzte Europako Batasunak "ingurumenaren babesa eta osasun publikoa" Adibide gisa aipatu du Gipuzkoa osorako aurreikusitako planta batek dioxina gutxiago sortuko lituzkeela 25 urtean 90eko hamarkadaren amaieran Gipuzkoan itxitako planta zaharrak sortzen zituenak baino, hau da, 25.000 tona urteko.

AGINTARIAK ETA EKOLOGISTAK AURREZ AURRE DAUDE



ALTZAN GURE SALTSAN

Laura Cifuentes-ekin elkarrizketan

- 1 Noiz hasi zinen erretzen?
- Duela 4 urte, 12 urte nituenean.
- 2 Nolatan hasi zinen erretzen?
-Nire lagunek erretzen zutenez, probatzeko esan zidaten eta nik probatu egin nuen, eta badakizu...
- 3 Zure gurasoek uzten dizute erretzen?
- Ez ,baina erretzen dut.
- 4-Erretzen al duzu etxean?
- Nire gurasoak daudenean ez, baina ez daudenean bai.
- 5 Zure gurasoek erretzen al dute?
- Bai, biek erretzen dute.
- 6 Zenbat diru gastatzen duzu tabakoan?
-Aste batean 10 edo 12 euro gutxi gora behera.
- 7 Ze marka mota?Zergatik?
- Lucky, besteak baino xuabeagoa delako.
- 8 Zenbat zigarro erretzen duzu egunean zehar?
- Hamar – hamaika.
- 9 Zergatik ez duzu uzten?
- Ezin dudalako, edo hori uste dut; ez bainaiz inoiz jarri!
- 10 Beno, bukatzeko beste galderatxo bat; ba al duzu erretzen ez duten lagunik?
- Bai, bi edo hiru.

Beno Laura eskerrik asko, eta hurren arte.
- Agur bai.



eli
hermoso



aitor
agirregabiria



Elisabeth eta Aitorren iritzia:

Gure iritzia da; orain jende gazte asko erretzen hasten dela aitzakirik gabe.

13 eta 16 urte bitartean jendea erretzen hasten da nortasun agiri bezalako bat agertzeko bestean artean.

Helduek, edo gurasoek ez dakite zergatik erretzen duten beren seme-alabek, baina ez jakinda zein momentutan dauden gazteak, ezinezkoa izango dute jakitea. Gure ustez, normalean ez da izaten gurasoek erretzen dutelako, baizik eta seme-alaben lagunengaitik. Batzuetan izan daiteke gurasoek erretzen dutelako, baina ez da normalena.

Gazteek, egia da erretzeari utz diezaioketela,(batzuk), baina ez dute nahi.

Jendearen iritziz; gazteak uler-ezinak gara.



ALTZAN GURE SALTSAN

Auditx-Akularren beste proiektu bat egitea erabaki dute



marta
correjero



ane
alfonso



gorka
arruti



Auditx-Akularreko egitasmoa ez aurrera ez atzera egon da joan den legealdetik, ez baitu orain arte oposizioaren babesa izan. Hala ere, auziari irtenbidea emateko, hitzarmena egin dute PSE-Eek eta EAJ-EAK eta EB/IU eta PPK egin dute haiekin.

Oposizioko alderdi politikoen ustez, egitasmoa gauzatzeko, Plan Orokorra aldatu beharra zegoen. Ondoren, EB/IUK eta PPK ere bat egin dute akordioarekin. Hitzarmenaren arabera, Auditx-Akularren 2.500 etxebizitza egiteko hasierako proiektua bazterrean geratu eta beste egitasmo bat egingo da. Horretarako, lehiaketa publikoa deituko du Udalak.

Auditx-Akularreko etxebizitzaren arazoari konponbidea emateko proiektua, babes ofizialeko etxebizitzak egitea erabaki dute, hainbeste estabaidatu ondoren.

PEDRO GONZALEZ

Santa Barbarako auzo elkarteko diruzaina.

“Gu Auditx-Akularren proiektuaren alde gaude. Hala eta guztiz ere, egitasmo horri ekin baino lehen, Altzak beste lehentasun batzuk ditu : anbulatorioan zerbitzu egonkorra ezartzea, kaleko segurtasuna indartzea... Beraz, arazo horiek konpondu beharko lirakete lehendabizi. Bestalde, Auditx-Akularreko egitasmoa gauzatzeko ondo zehaztu behar dira kontuak: aparkalekuak, etxebizitzak, berdeguneak...”

MARIA JOSE AZPEITIA

Harri Berri ikastolako guraso elkarteko diruzaina

“Etxebizitzarena arazo larria da, eta gazteentzako etxebizitza merkeak egitearen alde nago. Hala eta guztiz ere, Auditx-Akularreko egitasmoari buruz zuhurra naiz. Izan ere, Altzan orain arte gehiegikeriak egin dira: etxeak nonnahi eta berdegunerik ez. Auditx-Akularren zerbait egitekotan, ondo egina izan dadin, berdeguneak, aparkalekuak, behar bezelako errepideak eta abar behar dira”

KALE KANTOITIK

2000

Ekaina

Udal Gobernuak Auditx- Akularreko proiektua aurkeztu zuen. Arteen PSE-EE eta PP zeuden Udal Gobernuan. Proiektuaren aurka, Altza XXI Herri Ekimena sortu zen.

2001

Udala Auditx-Akularren lurak erosten hasi zen.

2002

Otsaila

Udal Gobernuaren bileran, proiektuaren kontra egin zuen PP ek.

Martxo

Udalbatzak bilera egin zuen hilaren 5ean eta PSE-EE besterik ez zen egitasmoaren alde agertu. 25ean berriro aztertu zuen gaia Udalbatzak, eta PPK aldeko botoa eman ez zuenez, gobernu ituna apurtu zen.

Azaroa

Proiektua eztabaidatu zuten Udalbatzaren ezohiko bileran, baina oposizioak ez zuen babastu.

2003

Otsaila

Altza XXI-ek Auditx-Akularren parkea egiteko egitasmoa aurkeztu zuen.

Uztaila

Auditx Akular berriro ere mahai gainean.

Osoko bilkuran, oposizioak (EAJ-EA, PP eta IU/EB) aurka egin zuen.

Iraila

Udal Gobernuak lehiaketa publikoa deitu zuen. EAJ-EAK eta Altza XXI plataformak lehiaketa bertan behera uztea eskatu zuten. PSE-EEren eta EAJ-EAren arteko negoziazioak hasi ziren.

KONTU KONTARI

ipuina



david
diaz

EGURREZKO PLATERA

Aitona gaixoa!

Bizitza osoa pasatu zuen esku hutsez lanean; etxera soldata eramateko borondate sendoa ez zuen inoiz laneko nekeak zapaldu. Borondate horri esker, bere familiak beti izan zuen mahaian janaria, eta beti izan ziren ongi. Bai

Aitonaren eskuak dardarka jartzen hasi ziren, hostoak bezela udazkeneko haizearekin. Horregatik, noiz behinka gauzak eskuetatik erortzen zitzaizkion, eta batzuetan puskatu egiten ziren lurrera iristean. Bazkarietan, ez zuen asmatzen goilara ahora eramaten, eta bere edukia mantelean isurtzen zen. Hori ez gertatzeko, platerera hurbiltzen zen, eta orduan platera erortzen zen lurrera. Eta horrela egunero.

Bere suhia, oso haserretua zegoen aitonaren dardarekin, eta erabaki bat hartu zuen: Egun hartatik, aitonak beste mahai batean jango zuen, eta egurrezko platera izango zuen; horrela, ez zuen ezer zikinduko eta ez zuen ezer puskatuko. Erabaki hau ez zitaien familiako beste kideei gustatu.

Harrez gero, aitonak burua etsipenez mugitzen zuen, noiz behinka malkoak botatzen zituen; izan ere, berarentzat oso gogorra zen bazterketa hori onartzea.

Pasatu ziren aste batzuk eta arratsalde batean, suhia etxera etorri zenean, ikusi zuen beredaratzi urteko bere semea ari zela zerbait egiten, zerbait lantzen gogo biziz, sukaldeko labana batekin. Aitak jakinmin haundiz esan zion:

-Zertan ari zara hain gogotsu? Plastikako lan bat?

-Ez, aita- esan zion umeak.

-Orduan, jakin dezaket zer den?

-Noski, aita. Egurrezko plater bat egiten ari naiz, zu aitona izango zarenerako, eta eskuak dardarka izango dituzunerako.

Eta horrela gizonak lekzioa ikasi zuen, eta handik aurrera aitona berriro familiaren ondoan eseri zen otordu guztietan.

KONTU KONTARI

rosa
vicente

ZINE KRITIKA

Denok amaiera on bat espero genuen, zoritxarrez, nire ustez ez da horrela izan. Ez naiz filmea kontatzen hasiko, ikusi ez duen jendea egon daitekeelako oraindik. Nire iritzia adieraztera mugatuko naiz soilik.

Beste kapituluekin konparatuz, hau txarrena izan da. Argumentua oso ondo dago, gionistak berdinak direla nabaritzen da, beti bezala, ulertezina delako. Bukatzeko presa daukatela ematen du. Istorioari amaiera ematen diote baina nahiko latza da, inork espero ez duena. Agian, Wachowski anaiek horrela egin dute, filmeak ondo bukatzea ohikoena delako. Horrela izango balitz oso gaizki geratuko litzateke. Nire ustez, estrategia horrek ez du funtzionatu. Borroka gutxi ditu, bigarreanean baino gutxiago, baina oso ondo eginak daudela esan beharra dago (nahiz eta asko flipatu).

“MATRIX REVOLUTIONS, dezepzio itzela”




KONTU KONTARI

Azken honetan ere, orakulurekin filme guztietan izandako hizketaldi aspergarria azaltzen da. Gainera, horiek ulertzeko behin bakarrik ikustea ez da nahikoa.

Bigarren filmeko pertsonai guztiak ez dira agertzen, zoritxarrez, bigarren filmea oso ondo egon zelako. Nire ustez hoberena izan zen, horrelako filme bat gainditzea oso zaila delako barkatu diet azkenengoarekin egin duten hanka sartzea.

Nahiz eta iruzkin hau negatibo samarra izan, trilogiako jarraitzaileak bazarete eta oraindik ikusi ez baduzue, noski, filmea ikustera joatea aholkatzen dizuet. Agian zuei niri baino gehiago gustatuko zaizue.





xabier
bermudez

kontu kontari

hiztegi
erotikoa

Lainoa jo : orgasmoa lortu

Self-service bat egin : masturbatu

Txapel txikia : preserbatiboa

Sexgurua : txapel txikiaz egiten dena

Gosex egon : gogo sexuala izan

Azpijana : sexu orala

Sexu-dantza : orgia

Kondoikumeak : istripuz jaiokak

Bostak burusoilaren aurka : masturbatu (gizonezkoak)

Kriskitina : klitoria

Arbolaren zurtoina mendi tartean sartu : kubana bat.

Sexu idatzia : sexu orala ez dena.

Euskal jauzia: tigrearen saltoa.

Argiñanoren errezeta-liburua : Kamasutra

Miamol : kubana bat.

Ikatzaren bila joan : el misionero.

Popatik hartu: atzealdetik eman.

Txupasex: mamada

Sexgarrena: sei aldiz jo larrua

Sexomofonoa: sexuaren intentsitatea neurtzekoa

Sexsport: larrua jo

Sex-sua: txortan egiteko nahia.

Enpresex: putinkluba

Sexnea: hazia

Xixarea jetzi: kanpaia jo.

Xomorro bihurria: esperma.

S
e
x
u
-
i
d
a
t
z
i
a
k
o
a

LABURRAK

ARITZ ORTA: Culé bat gure artean.-

Gehiago ere izango dira – ezta, Maialen?-, baina bistan dago Aritz oso zalea dela. Eta oso ondo iruditzen zaigu. Ez da ahaztu behar, gainera, Barcelonako zuzendaritza-taldean euskaldun peto bat behintzat badagoela: Txiki Begiristain.

Visca Barça, zer arraio !!



LORENZO : URTEBETE GUREKIN!

Jadanik urtebete egin du Lorenzok institutuan. Zer azkar pasatzen den denbora!! Badakigu asko maite duzuela, eta berak ere bai. Gainera, errekadu bat daukagu irakurle guztiontzat. Lorenzoren partetik: **ZORIONAK, eta URTE BERRI ON denoi.**

"¡VENGA BOLUDOS, PARECEIS TETOS DE VACA!"

HASIER ETXEBERRIA IDAZLEAREN HITZALDIA LASTER

HASIER ETXEBERRIA IDAZLEA, laster institutura etorriko da. Otsailean, hain zuzen ere, bere liburu bati buruz hitz egiteko: "Eulien Bazka". Batxileratoa dagoen eraikinean izango da ekitaldia.




LABURRAK



Nikita eta Claudio, ezagutzen al dituzue?

NIKITA ETA CLAUDIO ikasle berri-berriak ditugu. Berri-berriak, ez dira ezta Altzakoak ere, atzerritik etorri zaizkigu Errealeko jokalaria asko bezala. Nikita, adibidez, Bielorrusiatik etorri da, eta Claudio, berriz, Txiletik. Euskara ikasteko prest daudela esan digute. Beraz, animo!! . Ea denon artean laguntzen diegun euskara ikasten.



EUSKARAK OPARI: Bilbo, Guggenheim

Euskarak oparia dakar, bai.

Aldizkarian parte hartu, edo beste ekintzaren batean euskara bultzatzen ari direnak oparitzeko, TXANGOA antolatu dugu. Abenduak 23an, Bilbora, batik bat Guggenheim museoa bisitatzera. Ongi ibili!!

ADI!!!

LABURRAK

LITERATURA TAILERREKOAK FELIPE JUARISTIREKIN

F. Juaristi


Literatura tailerrekoak Koldo Mitxelenara joan ginen azaroak 21ean, ostiralez, liburu baten aurkezpen- ekitaldira. Liburuaren izena, "Airezko Emakumeak", eta idazlea, berriz, Felipe Juaristi. Nobela bat da, ia 300 orrialdekoa, eta emakume baten historia –Sara Vidal- kontatzen du. Kontakizun tristea da, eta bide batez musikaren historia ere agertzen da. Idazleak esan zuenez hiru urte behar izan ditu nobela osatzeko, egunean bi edo hiru ordu idatziz. Berak esaten zuenez, txantxetan, "gero esango dute idazleak ondo bizi garela", eta gehitu zuen gainera asko sofritu zuela idazten ari zen bitartean. Liburua ez dago guregan pentsatua, helduengan baizik. Baina guk bitartean, Felipe Juaristiren beste liburu batzuk irakur ditzakegu:

- "Laura eta itsasoa".
- "Animalien inauteria".
- "Haydn-en lora".


Guk hauetako batzuk irakurri ditugu, eta gomendatzen ditugu.

Orain beste idazle baten zain geratzen gara. Laster institutura bertara etorriko da; bere izena Hasier Etxeberria da.

Tamara F., Sharay Z., Eneritz S., Esti.I. eta Marta P.




LABURRAK



SANTO TOMASEKO FERIA, TXORIZOA ETA OGIA.

Aurten ere institutua bi lekutan egongo da Santo Tomaseko ferian. Konstituzio enparantzan DBHko 4. mailakoak egongo dira ikasketa bidaiarako dirua bildu nahian. Batxilergokoak berriz, Gipuzkoa enparantzan egongo dira. Beraz, azokako txistorra pintxorik goxoena jan nahi baduzue badakizue nora joan behar duzuen. Primerako ardo, sagardo...eta kalimotxoak ere ez dira faltako.

KONEXIOAK

iratxe
paulosiñaki
caracenadavid
hernandezander
perez

www.euskaltzaindia.net

Anttonekin arazoak dituzu euskara gainditzeko? Ba zuen onerako interneten bilatzen aritu gara, zuei webgune hau aurkezteko. Bertan hiztegi batua, jagonet entziklopedia zabala, euskal akademia honen azken arauak eta argitalpenak aurki ditzakegu besteak beste. Zure gurasoei zuen izena nondik datorren beti galdetzen ez egoteko, eta hauek seguraski ez dakitenez, hemen agertzen zaigu izendegi zabala. Kontsulta arloa ere badute, eta frogatu dugunez oso ondo dabil. Horrela ez duzue berriro hiztegi bat hartuko eta alferragoak bilakatuko zarete (hau posible bada).



www.hiverland.com

Oraindik ez duzue ezagutzen modan dagoen heavy talde lokal on berria? "Eske" beti gertatzen da berdin, bakarrik Operación Triunfo-ko kantari momorrotuak entzutean zuek ere tontotzen zarete. Ba hemen Alzako heavy metal talderik hoberena aurkezten zaizue, eta bertan informazio guztia duzue: albistekak, diskografia, forua, kontzertuak... oso onak direla deritzogu eta euskaraz ere abesten dute. Bota zakarrontzira "Joselito"-ren diskoak behingoz eta erosi hau, bakarrik 6€ kostatzen du eta.




www.atame.org

Gitarra jo nahi duzue eta ez duzue gitarra irakaslearekin joan nahi? Web orrialde honetan gitarra ikastaroa aurki dezakezu, akordeak eta erritmoen glosarioarekin batera. Gainera, behin ikasita, nahi duzun abeslariaren abestiaren partitura aurkituko duzu. Piano maitaleentzat ere lekua badago hemen. Musika atsegin baduzue gustatuko zaizuela ziur gaude. Espero dugu orrialde pornografikoak alde batera uztea eta, behingoz, kultura apur bat dutenetan sartzea!!!!!!

DENBORAPASA


HITZ GURUTZATUAK



EZKER-ESKUI: 1.- Balio Erantsiaren gaineko Zerga. 2.- Musu truk eman 3.Artsenikoaren ikur kimikoa. jatorri atzizkia. Begira. 4.- Baleuka. Gaueko astro. 5.Galioaren ikur kimikoa. Hodiaren erdian. 6.- Egurats. Bizkor, azkar. 7.- Alkoholen bukaera. Pinu mota. O birritan. 8.- Zoramena. 9.- Infusio mota.

GOITIK BEHERA: 1.- Abertzaleen Batasuna. Errepikatuz, nahi. 2.- Sendagile. 3.Fosforoaren ikur kimikoa. Sobera. Rontgen. 4.- Elkartu. Gironako hiria. 5.-Modua. Ez.Ar 6.- Ezten. Azalera neurria. 7.- Kontsonantea. Kitatzeke dago. Nitrogenoaren ikur kimikoa. 8.- Ohitura. 9. Zakur. Har ezan!

HITZ KATEATUAK



9 HIZKI
HERRIALDE

8 HIZKI
IGARLEAK
ZAMARIAK

7 HIZKI
ABANIKO
EKIALDE
LASAIK
OILARRA
ONARTUA
ZUZENAK

6 HIZKI
BEKOKI
BERDEA
BERRIA
BIRIKA
KIRIOA
LEKUKO
ZIRKOA

5 HIZKI
ALABA
ELIZA
ERDAL
IZADI
IZENA
LEGEA
LERDE
MAGAL
NEGAR
ZAKUA

4 HIZKI
ALAI
BILA
EKAR
KANA
KITO
NORA
ZIRI

KOMIKIA



URKO RUIZ




kutxa
gizarte ekintza



AURREKO SARIKETAREN IRABAZLEA: IDOIA SILVA

SARIKETA: Bigarren orrialdeko argazkia arretaz begiratu, nor da infiltratua?

IZENA:.....GELA:.....

SARIA: EUSKARAZKO MUSIKA CD BAT



altza institutua

2002-2003. Asturriko Bigarren Hezkuntza

altza

institutua

**Zuek
oporretan
eta ni berriz
lanera!!**

